

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Mikel Basabe Kortabarría, Aralar legebiltzar-taldeko bozeramaileak, indarrean den Erregelamenduaren babesean, ondoko **INTERPELAZIOA** egiten dio **Patxi Lopez** Lehendakariari, “**Nafarroako Foru Erkidegoko gobernuarekin 2009ko uztailaren 3an sinaturiko akordioari buruz**”, kontroleko osoko bilkurarako

ZIOA

lazko uztailaren 3an hitzarmena sinatu zuten Nafarroako Foru Erkidegoko gobernuak eta Euskal Autonomia Erkidegokoak. Hartan, besteak beste, ETBren lehenengo eta bigarren kateak Nafarroan digitalean ikusterik izan dadin egin beharrekoak zehazten ziren. Gaur da eguna hitzarmena bete ez, eta Nafarroan ETB digitalean ikusterik ez dagoena. Gainera, abuztuko azkeneko astean jakin izan da ETB Nafarroako kate pribatu biri lizentzia erosteko asmotan dabilela, horren bitartez heda dadin ETB Nafarroan digitalean. Alegia, 2009ko hitzarmena bete ez, eta beste nolabait ahalegindu.

Horren aurrean, hurrengo interpelazioa egiten dio Lehendakari Patxi Lopez Alvarezi:

INTERPELAZIOA

Argi dezala zer ekimen hartuko duen, 2009ko uztailaren 3ko akordioa bete eta Nafarroan ere ETBren kateak digitalean hartzerik egon dadin.

Gasteizen, 2010eko irailaren 16an

Mikel Basabe Kortabarría
Aralar legebiltzar-taldeko legebiltzarkidea